



Sakabangatze politika: Urrunketa



SARRERA

Duela 27 urte eskas hasi ziren euskal Preso Politikoen Kolektiboari urruntzearen espetxe-politika modu global eta sistematikoan aplikatzen.

Gutariko askok, presoan familiarteko eta ahaideok, bete-betean jasan dugu politika hori, 27 urte luze horietan. Beste batzuek, denboraldi laburragoz. Edozein kasutan, ez dago urruntzea hamarkadetan jasan beharrik, familia oso baten egonkortasun ekonomikoa, fisikoa eta psikikoa desegiteko. Guztiok jasaten ditugu politika horren ondorioak eta guztiok jarraitu beharko dugu ondorio horiek nozitzen, Espainiako eta Frantziako gobernuek egungo espetxe-politika indargabetzen ez duten bitartean.

Hala eta guztiz ere, bi gobernuak immobilismoan egoskortu dira. Espainiako gobernuaren kasuan, immobilismo horri, gainera, auzitegien azkenaldiko onespena erantsi behar zaio: duela gutxi Entzutegi Nazionalak atzera bota ditu Espetxe Zaintzako Auzitegiaren autoaren kontra gure 25 familiartekok jarritako helegiteak. Auto horrek ezezkoa ematen zion presoak Euskal Herriko espetxeetara ekartzeko eskaerari. Salbuespeneko auzitegi batek salbuespeneko politika bati ematen dion abala da. Gizatasun aldetik eutsiezina den egoera bati bermea ematen jarraitzea da guretzat.

Jakin badakigu, politika honen babesle nagusia Espainiako gobernuaren espetxe-politika izan arren, beste alderdi politiko eta giza sektore batzuek ere politika hori sostengatu egiten dutela eta beste zigor bat eskatzen dutela espetxeratutako gure senideentzat. Zigorra ez dadila izan legediak jasotzen duen askatasunaren gabetzea, baizik eta espetxean egoteari erants dakiola oinazea eta sufrikarioa.

Baina, badakigu baita ere, eta horrela erakutsi du gehiengo politiko, sozial eta sindikal euskaldunak sakabanatze politika gaitzetsi duenean, izaera demokratikoa duten indar politikoen eta sektore sozialen asmoen artean ez dagoela eskubideak urratzen dituzten politikak babestea.

Txosten honen bidez sakabanatze politikak, eta modu konkretuagoan, sakabanatzearen funtsezko neurria eta osagaia den urruntzeak sortzen dituen egoerak eta ondorioak azaldu nahi ditugu. Neurri horretatik eratortzen diren ondorioen eta egoeren aurrean, kasu batzuetan, ezikusia egin du Entzutegi Nazionalak, eta, beste batzuetan, garrantzia kendu die; horrela jokatzek honako errealitate hau desitxuratzea lortu du: urruntzea, alde batetik, preso politikoen ingurune familiar eta afektiboaren kontra zuzendua dagoela eta, bestetik, presoan beren kontra zuzendua dagoela. Presoen eskubideak eta haien familiarteko eta lagunen eskubideak urratzen dituen neurri bat dela eta sufrikarioa erabiltzen duela eskusiboki politikoak diren helburuak lortzeko.

1.

SAKABANATZE POLITIKARI BURUZKO EZINBESTEKO OHARRAK

Sakabanatze politika moduan ezagutzen duguna presoek kolektibo jakin bati aplikatzen zaion salbuespeneko neurrien marko bat da. Neurri horiek eskubideak urratzen dituzte, murrizketa jakin batzuk aplikatzen dituztelako edo sortzen dituzten egoerek ondorio horiek dituztelako. Sakabanatze politikak espetxe-erregimen ia osoa ukitzen du, espetxe-erregimen paralelo bat aktibatuz: urruntzea, bakartzea eta erasoak; ahozko eta idatzizko komunikazio guztien kontrola; bisitetarako baimenen murrizketa; baldintzapeko askatasunak ukatzea; gaixotasun larriak eta sendaezinak dituzten presoak espetxetik ez ateratzea; laguntza medikoa eta laguntza juridikoa behaztopatzea...

Espetxean dauden gure familiartekoen eskubideak urratzen ditu sakabanatzeak, baina, era berean, geure eskubideak ere urratzen ditu. Gure Elkartearen lanen artean betidanik eman zaio lehentasuna neurrien marko horrek babesten dituen sakabanatze politikaren eta eskubideen urraketa errealitatea eta ondorioak ezagutarazteari. Egungo espetxe-politika eratzen duten neurrien ondorio guztiak eta ondorio bakoitza garatzea oso konplikatu da; alabaina, sakabanatzearen giltzarria urruntzea da. Urruntzetik datoz eskubideen urraketa nagusiak eta azkenaldian Entzutegi Nazionalak urruntzeari eman nahi izan dio legezko estaldura.

Preso euskaldunak, bai prebentiboentzako espetxeetakoak, bai zigortuentzako espetxetakoak, **beti beren bizilekuetatik urrun** egon dira. 1978tik sakabanatze politikaren aplikaziora bitartean gobernuaren politikak honako espetxe hauetan edukitzen zituen presoak: Madrileko espetxeetan, Soriakoetan, Herrera de la Mancha (Ciudad Real) eta Puerto de Santa Marían (Cádiz).

Sakabanatze politikaren lehen urratsak eta presoek urruntze nagusiak 1987 eta 1988 urteetan gertatu ziren. 1989ko maiatzean gertatu zen sakabanatzearen aplikazio orokor eta sistematikoa. Preso politiko euskaldunak Balear Uharteetara, Kanariar Uharteetara, Ceutara eta Melillara ere urrundu zituzten.

Urruntze hori justifikatzeko asmoz espetxe-tratamenduaren arrazoiak erabili ziren; hain zuzen ere, presoek sektore “gogorra” sektore “bigunetik” bereiztearen komenentzia eta pribilegioak ezabatu beharra.

Espetxe-legediak aitortzen dituen eskubideak “pribilegiotzat” hartzeaz gain, sakabanatzearen bidea erraztu behar zuen hedabideen kanpainaren barnean honelako kontakizunak agertu ziren: arkume errez, xanpainaz, otarrainez eta otarrainxkez osatutako oturuntzak egiten zituztela presoek; zelda-zoruetan moketak zituztela eta asmatutako beste nabarmenkeria batzuk; kontakizun horiek norbaitek sinesgarritzat jo zitzaizkela pentsatze hutsa ere sinesgaitza gertatzen da. Ez da gure asmoa pasadizozko gertaeretan geratzea, baizik honako hau azaltzea: salbuespenezko politika bati legezketasun itxura eman ahal izateko faltsukerietara jo zela, garai haietan ez baitzen komeni politika haren benetako helburua agertzea.

honako errealitate hau desitxuratzea lortu du: urruntzea, alde batetik, preso politikoaren ingurune familiar eta afektiboaren kontra zuzendua dagoela eta, bestetik, presoaren beren kontra zuzendua dagoela. Presoen eskubideak eta haien familiarteko eta lagunen eskubideak urratzen dituen neurri bat dela eta sufrikarioa erabiltzen duela eskusiboki politikoak diren helburuak lortzeko.



Sakabanatze horrek ekarriko du egun konkretuetan Euskaditik espetxeetara egiten ziren familiartekoen autobusetako txangoen amaiera. Aktibista bakoitzak jakinaraziko du, espetxeetako sindikatuek azaltzen duten moduan, noiz dagokion bere galeriari. Bigarren pribilegio bat ere desagertuko da: eskubidez astero dagozkien bi komunikazioak bateratu eta gutxienez 40 minutu jarraituko bisitaldiak eduki ahal izatea.

El País, 1989ko maiatzaren 15ean

Espetxe-politikaren aplikazioa zurrizko ahaleginez gain, espetxeetako sindikatuen azalpenek ematen zuten politika horren helburu nagusietako bat ulertzeko giltzarria. Hainbeste ahalegin fisiko eta ekonomiko eskatzen zuten derrigorrezko joan-etorriak arinki tratatzeaz gain, beste asmo hau ere nabaritzen da: preso euskaldunen ingurune afektibo eta familiarrari zailtasunak eta oinazea eranstea, sakabanatzearen bidez.

Hala ere, une honetan inor ez da saiatzen espetxe-politikaren benetako izaera eta helburua ezkutatzeko. Fernández Díaz ministroak behin eta berriro egindako adierazpenek, ETArek desagaitzea espetxe-politikaren desagertzearen baldintza moduan jarritz, ez dute aukerarik ematen intentzio oneko ekibokoetarako.

Entzuteki nazionalak berak onartzen du eskumenik ez duela Nazioko Gobernuari dagokion gai bati buruzko ebazpenak emateko.



Laburki esanda, ETA banda terroristako presoak Euskal Herriko eta Nafarroako espetxeetara hurbiltzeari buruzko aukera politika kriminaleko alternatiba bat da, eta azken batean, Nazioko Gobernuari dagokio horretaz erabakitzea, diskrezionaltasun arautuaren eremuan, eta Tribunal honek ez du horretaz eskumenik, helegitea jartzen duen espetxeratuaren oinarrizko eskubideen inolako urraketarik gertatu ez delako.

Beraz, gure familiartekoei aurkeztutako helegiteen aurrean tribunal honek duen funtzioa, giza eskubideen urraketarik badagoen ala ez baloratzera mugatzen da. Orain arte eman diren ebazpenen arabera, erabatekoa da balorazio horren gauzatzeari buruzko gure mesfidantza. Zentzu honetan, aurkeztu diren alegazio guztiak atzera botatzea sistematikoezia eta uniformeegia da, beste ondorio batera heldu ahal izateko. Eta ondorio horrek indar gehiago hartzen du eskubideen urraketak gertatu direla baztertze ahalegin horretan gu guztion, preso politiko euskaldunen familiarteko eta ahaideon kontrako salaketa ezin larriagoak egiten dituztenean.

2.

URRUNTZEAK

Neurri honen xedea eta ondorenak baloratu ahal izateko, merezi du espetxe-politikaren bi alderdi hauek kontuan hartzea.

1. Sakabanatzea ez datza preso euskaldunak bereizi eta Espainiako eta Frantziako espetxeetan banatzean. Diseinu eta pautak oso jakinak dituen urruntze politika bat da, batez ere: geografikoki Euskal Herriko urrunen dauden espetxeetan kontzentratzen da preso euskaldunen kopururik handiena; aldiz, espetxe hurbilenetako kopurua oso txikia da. Pautak horiek agerian uzten dute urruntzeak duen asmo zigortzailea.

ESPETXEA	Km	Presoak
LOGROÑO	190	4
BURGOS	210	4
EL DUESO, Kantabria	225	2
SORIA	270	3
DUEÑAS, Palentzia	300	4
ZUERA, Zaragoza	300	10
VALLADOLID	340	6
MANSILLA, Leon	360	7
DAROCA, Zaragoza	360	4
SEGOVIA	410	1
VILLABONA, Asturias	440	6
TOPAS, Salamanca	440	10
TERUEL	450	1
BRIEVA	470	2
ALCALA MECO, Madrid II	450	2
NAVALCARNERO, Madrid IV	480	2
VALDEMORO, Madrid III	490	1
SOTO DEL REAL, Madrid V	490	3
ARANJUEZ, Madrid VI	500	3
ESTREMER, Madrid VII	520	6
OCAÑA I eta OCAÑA II	520	9
CASTELLÓ I eta CASTELLÓ II	550	17
VALENCIA I eta VALENCIA II	540	22
HERRERA DE LA MANCHA	620	11
MONTERROXO, Lugo	640	5
CURTIS, A Coruña	650	11
CÁCERES	650	5
BADAJOS	750	9
VILLENA, Alacant II	720	12
A LAMA, Pontevedra	730	10
JAEN	780	10
FONCALENT, Alacant I	760	9
GRANADA	780	13
CÓRDOBA	810	12
MURCIA I eta MURCIA II	830	16
SEVILLA	910	10
HUELVA	1000	12
ALMERIA	1000	7
PUERTO I eta PUERTO III, Cadiz	1050	28
ALGECIRAS, Cadiz	1100	11

Frantziako estatuari dagokionez, Euskal Herritik 800 eta 1050 kilometro arteko distantziara kokatuta dauden 14 espetxetan kontzentratzen dira preso politiko euskaldunak; horietan aurkitzen dira Frantziako estatuan sakabanatuta daude 91 preso politikoetatik 59; 500 eta 750 kilometro arteko distantziara dauden espetxetan aurkitzen dira 22 preso; azkenik, 230 eta 450 kilometro arteko distantziara dauden espetxeetan aurkitzen dira 11 preso.

2 Urruntzea ez da, inondik inora, aldi baterako neurri bat edo neurri iragankor bat, iraunkorra baizik. Ez da zigorra betetzen ari diren presoek zuzendutako neurri bat ere. Preso politiko euskaldunak, espetxera sartzen dituztenetik, eta, esan dugun moduan, epaituak izan baino lehenagotik ere, sistematikoki urruntzen dituzte, espetxetik atera bitartean.

Horrek esan nahi du, bete behar duten zigorrari beste zigor bat eransten diotela, inongo auzitegik ezarri ez duena: ingurune familiar, afektibo, kultural eta sozialetik sistematikoki eta iraunkorki urrundua izatea. Urruntze hau modu askotara mozorrotu liteke, dotoreago edo zatarrago, baina zalantzarik gabeko esanahi bat dauka: erbesteratzea. Eta espetxe-politikaren balizko birgizarteratze eta birsozializatze helburuen kontra jotzen du zuzenki, deserrotzea sustatuz.

2.1

ENTZUTEGI NAZIONALA URRUNTZEAREN AURREAN

Entzutegi Nazionalak atzera bota ditu preso politikoak Euskal Herrira ekar zitzatela eskatuz familiartekoek jarritako helegite guztiak. Esajeratzeko beldurrik gabe esan dezakegu, auto (ebazpen) batetik bestera aldatzen den bakarra izenburua dela. Edozein dela ere helegite bakoitzean agertzen den zirkunstantzia eta egoera pertsonala, erantzuna beti berdina eta uniformea da. Neurriaren izaera sistematikoa indartzen duen ebazpen sistematiko bat. Horrela, banakako tratamenduan justifikatua izateko aukera guztiak galtzen ditu eta soilki politikoak diren helburuak lortzeko hark duen tresna-izaera azpimarratzen da.

Entzutegi Nazionalak erabiltzen dituen zuzenbideko oinarrien zati handi batek berez ez duen legezko estaldura bat eman nahi dio urruntzeari. Ez gara juristak eta ez da gure asmoa helegiteen ebazpena eztabaidatzea edo Zuzenbideko profesionalei dagokien eremuan sartzea. Baina, guretzat eta edozeinentzat ezinezkoa da ez ikustea, legezko estaldura horren bila zebiltzala interpretazio guztiz korapilatsu eta nahasietara heldu direla, eta horrek, azken finean, lege-sare nahasi, kontraesankor eta anbiguora eraman gaituela; lege-sare horrek aukera ematen du babestu behar lituzkeen eskubideak urratzeko.

Honela, ikusten dugunez, agiri berean alde batetik honako aipamen hau egiten du:

Espetxe zigorra dutenak beren bizilekutik hurbilen dagoen espetxean kokatzeak izan behar du arau orokorra, beti ere zigortuari dagokion sailkapenarekin bat baldin badator espetxea, eta hori eratortzen da Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 12. artikulutik, zigortuen deserrotze soziala eragotzi beharraz hitz egiten duenean. Alabaina, egon daitezke motiboak zigortuak beste leku batzuetara esleitzea justifika dezaketenak, eta horrela onartu du Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak agertutako sententzietan, hala nola, presoen pilaketa eragotzi beharra dagoenean edo diziplina egokia bermatu behar denean. Justifikazioaren arrazoi hauek injerentzia proportzionatua izatea ekar dezakete, baina delinkuentzia antolatuen edo terrorismoaren kasuan, hemen gertatzen den moduan, beste arrazoi batzuk erants dakizkioke, erakunde bereko kide gehiegi espetxe berean kontzentratzea eragotzi behar denean, hori baliatzen baldin badu erakundeak bere kideen gain duen kontrola ezartzen jarraitzeko.

eta, geroago, beste hau:

Materia honetako administrazioarekiko auzi-jurisprudentziak, hau bezalako auziak ebazteko eskuduntza duenak dioenez, "espetxeko legediak edo Konstituzioak presoei onartutako eskubideen artean ez dago espetxe jakin batera bidalia izateko edo espetxe jakin batean kokatua izateko eskubiderik, ez eta norbere ohiko bizilekutik hurbil dagoen espetxe batera bidalia izateko ere (Espetxeen Lege Organiko Orokorren 3. artikulua), ez eta Administrazioarentzat zentzu horretako inolako agindurik ere.

Beraz, Espetxeen Lege Organiko Orokorrek zigortuen deserrotze soziala eragotzi beharra aipatzen du espresuki, lege orokortzat hartu behar dela zigortuak beren bizilekutik hurbilen dagoen espetxean kokatzea eta Giza Eskubideen Europako Tribunalak zirkunstantzia jakin batzuk jasotzen dituela, espetxeen

ordenari dagozkionak, zigorra betetzeko beste zentro batzuk izendatzea justifika dezaketenak. Entzutegi Nazionalaren interpretazioak justifikaziorako kausa horiei beste batzuk eranstean dizkie, oso ezberdinak direnak eta delituaren jatorriarekin zerikusia dutenak, eta ez presondegien izaerarekin loturiko zirkunstantziekin. Horrela justifikatzen du zigorra betetzeari eranstean zaion beste zigorra, espetxe-legediari arrotza zaiona.

Baina, batez ere, esan nahi duguna hau da: urruntzeak patroia jakin bat duela, Entzutegi Nazionalaren kontsiderazioetan islatzen ez dena. Guk ez dugu ezagutzen gure familiarakoek zigorrak bete ditzaten izendatutako “beste” zentrorik; ezagutu ditugunak zigorrak bizilekutik urrun betetzeko bereziki kalkulaturako espetxeak dira. Zigorra oso-osoki eta beti bizilekutik urrun betetzeaz ari gara, eta, kasurik gehienetan, ezin gehiagoko urrunketaz, aurreko taulan ikus daitekeen moduan. Kasu batzuetan, ordea, alderantzizko zirkunstantzia ere gertatzen da: kontzentrazio handiago bat eragoztearren, preso euskaldunen kopuru txiki batek bere zigorra familiaren bizilekutik oso urrun ez dauden espetxeetan betetzen du.

Geure buruari galdera hau egiten diogu, gainera: familiaren bizilekutik hurbil dagoen presondegi batera destinatua izateko eta han kokatua egoteko eskubide gabezia nola uztartuko dugu Espetxe Arautegiaren 3.3 artikuluekin?

Zigorraren betetzea eta askatasuna kentzen duten segurtasun neurriak printzipio batek inspiratu behar ditu: eskubideak dituen subjektua da preso eta ez dago gizartetik kanpora baztertua; gizartearen zati izaten jarraitzen du. Ondorioz, espetxeko bizitzaren erreferentzia moduan askatasuneko bizitza hartu behar da; ahal den gehien murriztuko dira espetxean itxita egotearen ondoren kaltegarriak; lotura sozialak, entitate publiko eta pribatuekiko lankidetzak eta esku-hartzea eta prestazio publikoetarako sarrera sustatuko da.

Edo nola uztartuko dugu Espainiako Konstituzioaren 25.2 artikuluekin, zeinak aldarrikatzen baitu zigortuak oinarritzko eskubide guztiak izango dituela, sententziak mugatzen dizkion eskubideen salbuespenarekin.

Zentzu honetan Saez Valcarcel magistratuaren boto partikularrean jarri nahi genuke arreta. II. eranskinak boto horri sorrera eman dioten lau puntu nagusiak osotasunean biltzen ditu. Hitzez hitz:

- (1) Familiaren bizilekutik ahal den hurbilen espetxe zigorra betetzea giltzapetuaren eskubideetako bat da.
- (2) Espetxe-Administrazioak ezin dezake urrundu modu sistematiko eta

unibertsalean giltzaperatu mota bat, delituaren izaerari begiratuta, neurri horrek legearen babesik ez duelako.

(3) Giza Eskubideen Itun Europarrak aitortzen duen bizitza familiarerako eskubidea urratu egiten du urruntzeak. Eta

(4) Urruntzea portaera zuzentzera edo aldatzera doan neurri hertsagarria da, berreziketara eta birsozializaziora orientatua egon behar duen tratamenduaren zatitzat har ezin dezakeguna.

URRUNTZEAREN PATROIA ETA INTENTZIONALITATEA

Urruntzeak zigor-izaera duela esaten ari gara, bai espetxeratuak dauden gure senitartekoentzat, eta baita geuretzat ere. Ez da funtsik gabeko baieztapen bat; neurri hori aplikatzeko erabiltzen den patroian eta pautetan oinarritua dago; neurri hori, jadanik adierazi dugun moduan, preso euskaldun gehienak urruneneko espetxeetan kontzentratzean datza, presoek kopuru txiki bat bakarrik utziz hurbileneko espetxeetan. Euskal Herriko espetxeetan zigorra betetzearena, berriz, ez-ohikotzat bakarrik har dezakegu. Eskuarki, 2 eta 5 artean izaten da Euskal Herriko espetxeetan egoten diren presoek kopurua. Une jakin batzuetan bakarrik izan da kopuru hori handiagoa, baina zirkunstantzia puntualetan bakarrik gertatu da, hala nola, atxilotu talde bat espetxeratu dutenean; gainera, atxilotu horiek berehala eraman izan dituzte urrunagoko espetxeetara.

Zigorra betetzen doazen neurrian preso euskaldunak beste espetxe batzuetara eramaten dituzte, zigorra betetzeko dagozkien zentroak aldatzen dituztelako. Ondorengo taulak destino aldaketagatik gertatutako lekualdaketak jasotzen ditu, 2013ko urtarrilaren eta 2015eko ekainaren artean gertatu direnak, eta 210eko kopurura heltzen direnak. Lekualdatze ugari egon diren arren eta hainbat preso espetxetatik irten direlako presoek kopuru globala jaitsi den arren, urruntzearen patroiak bere horretan dirau.

2015eko urrian 417 dira preso politiko euskaldunak; haietako lau Euskal Herriko bi espetxeetan giltzapetuak daude eta 413 urrunduak daude. 413 preso horietatik 169 Euskal Herriko 800 eta 1100 kilometroren arteko distantziara kokatutako espetxeetan daude (1600 eta 2200 arteko kilometro kopurua egin behar dute bisita bat egiteko) eta 58 preso bakarrik daude Euskal Herriko 390 kilometro baino gutxiagora (400 eta 800 arteko kilometro kopurua). 186 preso

FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEAREN URRATZEA

Espetxeratuak dauden gure familiartekoek jasaten duten urruntze iraunkorretik eratorzen diren hertsapenek eta derrigorrezko baldintzek familia-bizitzarako eskubidea urratzen dute. Zaitasunek, gastuek eta arriskuek bisitak eta komunikazioak behaztopatzen, zailtzen eta eragozten dituzte, eta gure familietako bakoitzari baldintza gogor horien zama bizkarreratzen diote.

ZAILTASUNAK

Arreta jarri behar dugu gertaera honetan: txosten honetan hurbilenekoak kontsideratzen ditugun espetxeetan bisitak egiteko, hots, 400 kilometro baino gutxiagora kokatuak dauden espetxeetara joan-etorria egiteko 400 eta 800 kilometroren arteko distantziak egin behar dira. Alabaina, ikus daitekeen bezala, egoera hori kasu gutxi batzuetan bakarrik gertatzen da, gehienok 1000 eta 2200 kilometroren arteko distantzia egitera behartuak baikaude; bidaia horietako desplazamendu, trasbordo eta konexio konplikatueterako 24 ordu baino gehiago behar dituzte familiartekoek. Gainera, bidaiaren gastuek langile baten batezbesteko soldata gainditzen dute.

Bisita arruntak 40 minutukoak izaten dira eta solastoki batean egiten dira, baina telefonotxo baten bidez bakarrik hitz egin dezakete presoak eta bisitariak. Hilean behin bakarrik egin daitezke vis a vis (aurrez aurreko) bisitak, kontaktu zuzenerako aukera ematen dutenak, eta iraupen luzeagokoak izaten dira, eskuarki ordu eta erdikoak. Bikoteen kasuan iraupen bereko komunikazio intimo baterako baimena ematen zaie.

- Espetxe gehienetan larunbat goizeko 9:00etan hasten dira bisitaldiak. Bisitak egin ahal izateko, espetxean aurkeztu behar du bisitariak komunikaziorako seinalatutako ordua baino ordu bate lehenago. Goizeko 8:00etan Almeria, Huelva, Lyon, Reau (Paris), Pontevedra, Cordoba, Granada, Algeciras edo Murciako espetxetan egon ahal izateko, gutxienez 11 ordu egin behar ditugu

bidaian, erregaiak eta janariak hartzeko behar den denbora kontuan hartu gabe.

Horrek esan nahi du ostiral arratsaldeko 8etan errepidean egon behar dugula, lan-astearen eta bidaiaren artean atsedunik hartu gabe; gau guztian gidatzen jardun beharko dugula, atsedenaldirik hartu gabe, nahiz eta atsedenaldi horiek oso beharrezkoak izan gure segurtasunerako; kilometroak eta kilometroak egin, jakinik edozein istripuk (matxura bat, gurpilaren zulaketa bat...) atzerapena sor lezakeela eta bisitarik gabe utziko gaituela. Bisitaren osteko bidaiarako beste horrenbeste bidaia ordu gelditzen zaizkigu, neke pilatuarekin eta berriro ere atsedena hartu eta lanera sartzeko denbora eskasarekin.

- Beste espetxe batzuetan, hala nola, Valenciako emakumeen moduluan, bisitak ostiral goizean edo igande arratsaldeko azken orduan izaten dira; lehen kasuan, lanegun oso bat galdu behar da; bigarren kasuan, astelehen goizaldera iritsiko da etxera, 1000 kilometroko bidaia bat egin ondoren, eta ordu gutxi batzuetara lanera sartu beharko du.

- Orain arte norbere autoan egiten diren desplazamenduaz jardun gara. Beste garraibide batzuek, hala nola, trenek edo autobusek iraupen luzeagoko bidaiak egitea eskatzen dute; trena edo autobusa aldatu behar izaten da eta, ondorioz, iraupen luzeagoa izaten dute joan-etorriek, konexioak egiteko itxoin beharra izaten baita.

- Espetxe berean egonda ere, preso euskaldunak modulu edo galeria ezberdinetan bereiziak daude, eta komunikazioetarako ordutegi eta egun ezberdinak izendatzen zaizkie. Espetxeetako sindikatuak beren garaian iragarri zituzten helburuak bete ondoren, oso konplikatuak da bidaiak partekatzeko antolatu ahal izatea, horrek hainbat onura ekarriko lituzkeen arren: auto berean joateko eta autoa txandaka gidatzeko aukera, kostu ekonomikoak murriztea, higadura fisikoa eta arriskuak gutxitzea.

- Autoa partekatu dezakegunean espetxeko atean ordu luzeetan itxoin behar izaten dugu, lehen bisita egiten denetik azkenekoa amaitzen den bitartean.

- Espainiako estatuko hainbat espetxetan komunikazio berezien edo vis a vis komunikazioen ordutegiak lan-egunetan jartzen dira. Espetxe batzuetan laneko ziurtagiria aurkezten badute bakarrik emango diete bisitariei baimena komunikazio horiek aste bukaeran egiteko. Horrek behartzen ditu hilero joan-etorri gehiago egitera, gehiago gastatzera, arrisku gehiago hartzera eta zailtasunak eransten dizkie langileei, beren oporraldiak eta atsedenaldiak bidaia horietan eman behar baitituzte.

- Are okerragoa da bizikidetzako vis a vis komunikazioak (10 urtez azpiko seme-alabekin presoek izaten dituzten komunikazio bereiziak) lanegunetan direnean, horrek behartzen baititu haurrak egun oso bat klasera joan gabe egotera eta hurrengo egunean eskolara joatera, bidaia luze batek eskatzen duen atsedunik hartu gabe.

GASTUAK

Hurbileneko espetxera, Logroñokora, joateak erregaietan eta autobidetan 200 euroko gastura hurbiltzen gaitu. Urrunagoko espetxe batzuetara, hala nola, Puertoko, Huelvako, Algecirasko edo Frantziako estatuko Bapaume edo Liancourt-eko espetxeetara joatea pertsona bakoitzeko 250-300 € inguru kostatzen da; beraz, bisiten hileroko kostua 1000 eta 1200 euro artekoa da, eta langile baten soldata gainditzen du. Kasu horietan prezio merkeena Andaluziako espetxe batzuetara joateko Etxerat-ek antolatutako autobusena da; bidaiaren prezioa pertsonako 185 eurokoa da. Baina, autobus hori da antolatu ahal izan dugun bakarra, eta Puerto I, Puerto III eta Algecirasko espetxeetara bakarrik joaten da. Plazak, logikoki, gutxi dira eta bidaiaren iraupena 39 ordukoa da, komunikazio guztiak egin ahal izateko hainbat ordu itxaron behar izaten baita. Gasteiztik ostiral arratsaldeko 8etan irteten da eta igande goizaldeko 6:30ak inguruan itzultzen da.

Esan dugun moduan, urruntzea ez da denboraldi baterako neurria; neurri iraunkorra da. Bisitatzeke eskubidea gauzatzeak kostu ekonomiko jarraituak eta ugariak eskatzen dizkigu eta horrek gure familiaren ekonomia oso egoera txarrean uzten du.

ARRISKUAK

Ezarrita dauden ordutegiek baldintzatzen dituzte gure joan-etorriak. Hori dela eta, arrisku-baldintzetan bidaiatzera behartuak gaude: ordutegiak oso estuak dira egin behar diren ehunka kilometroak egiteko; segurtasunak eskatzen dituen atsedenaldirik ezin da hartu eta edozein motatako klima-baldintzetan ibili behar da. Neke handiagoz heltzen diogu oraindik itzulera bidaiari. Horregatik, jasaten ditugun istripurik gehienak itzulerakoan gertatzen dira.

Arrisku egoera horretan ibilita, errepedeko istripuak ugariak dira. Gutako batzuk hiru istripu larri izatera iritsi gara gure joan-etorrietan. Sakabanaketaren urterik beltzenak 2003 eta 2004 izan ziren. 2003an 100 familiarteko gertatu ziren ukituak, 23 istriputan; 2004ko lehen lau hilabetetan beste 14 istripu izan ziren eta urruntzeak eragindako 12 hildakori beste 3 hildako erantsi zitzaizkion.

Azken hiru urteetako istripuen balantzea honako hau da (I Eranskina):

25 familiarteko ukituak, 10 istriputan, 2014an zehar.

19 familiarteko ukituak, 8 istriputan, 2013an zehar eta

42 familiarteko ukituak, 14 istriputan, 2012an zehar.

Orain arte 16 pertsonak utzi dute beren bizitza errepideetan, eta arriskua etengabe aktibatua dago; arriskuan ibiltzera derrigortuak gaude; ezin dugu ekidin. Arriskuan ibiltzearen alternatiba lotura afektibo uko egitea, familia izateko eskubideari uko egitea da eta ukazio hori onartezina da. Alternatiba horren aurrean, bidaiak egitea erabakitzen dugu guk. Gure erabakia da, baina inoiz ez gure erantzukizuna.

ERAGOZPENAK

Bisitak egiteko bidaietan eta joan-etorrietan gainditu behar ditugun eragozpenei buruz hitz egin dugu orain arte. Hala eta guztiz ere, bada beste egoera bat, oraindik mingarriagoa dena eta kontuan hartu beharrekoa: adinagatik edo gaixotasunagatik bidaiak hauek eta bidaiak hauetako baldintzak jasan ezin dituztenak. Gure familiartekoek jarritako helegiteak, Entzutegi Nazionalak osoki atzera bota dituenak, hainbat egoera jasotzen dituzte: pertsona adintsuak direlako, gaixotasun larriak dituztelako eta osasun egoera eskasa dutelako inoizka bakarrik edo baldintza jakinetan bakarrik egin ditzaketenak ehunka kilometroko bidaiak; edo inolaz ere horrelako bidaiarik egin ezin dutenak; familiarteko espetxeratuak bisitatzea galarazten zaien pertsonak, bisitetarako eskubidea, familia bizitzarako eskubidea baldintza batzuen mende dagoelako eta baldintza horiek bete ezin dituztelako. .

ENTZUTEGI NAZIONALA FAMILIA-BIZITZARAKO ESKUBIDEAREN AURREAN.

Jadanik aipatu dugun moduan, Entzutegi Nazionalaren asmoa ez da giza eskubideen urraketa zein zirkunstantzian eta egoeratan gertatzen den ebaluatzea, baizik urraketa zirkunstantzia eta egoera horietatik ez datorrela frogatzeko argudioak bilatzea. Familia-bizitzaren eskubideari buruz egiten dituen kontsiderazioetan, gainera, erabateko mespretxua agertzen du espetxean daude gure familiartekoek duten oinarritzko eskubide batekiko. Eskubide hori kendu egin digute.

Hitzez hitz aipatzen dugu:

Bestalde, urruntze orok ez dituzte oinarritzko eskubideak urratzen; eskubideen urraketa kasu honetan bakarrik gertatuko da: gehiegizko distantziak, garraio bideen zailtasunekin elkartuta, seriozki eragozten edo zailtzen dituztenean familiartekoen eta lagunen bisitak, familia bizitzarako eskubidea deuseztatzeraino.

Alabaina, Entzutegi Nazionalak sistematikoki atzera bota ditu aurkeztutako alegazio guztiak. Beraz, gure familiartekoak Ocaña, Castelló, Algeciras, Almería, Pontevedra edo Córdobako presondegietan bisitatzeke egin behar ditugun 1100, 1460, 2000, 2200 kilometroak ez dira oraindik gehiegizko distantziak. Gainera, zailtasunak ere ez dira nahikoak tribunalak pentsa dezan bisitak seriozki zailtzen dituztela.

Ez dakigu Entzutegi Nazionalak zer ulertzen duen gehiegizko distantziaz, zailtasunez edo zailtasun larriez. Ondoriozta dezakeguna hau da: bisitak egiten diren bitartean, edozein mailatakoa delarik ere ahalegina eta sortzen duen sufrikarioa, gure familia-bizitza ez da apurtu, beraz, ez dio axolarik. Esan genezake, baita ere, oso zaila dela apurketa hori jomuga bat dela ez ondorioztatzea. Hala eta guztiz ere, ez dira hauek ondoriozko larrienak.

Berrito ere hitzez-hitz aipatzen dugu:

Espetxera desplazatzeko balizko eragozpen baten (adin kontuengatik, osasun egoeragatik edo arazo ekonomikoengatik) aurrean familiartekoek duten egoera espetxeratuak eska ditzakeen ez-ohiko baimenen bidez konpontzen da, haiek espetxe-tratamendu hori bazter badezakete ere;

kasu horretan, eskubide hori gauzatzeko eragozpenak eta oztopoak espetxeratuaren beraren borondatearen ondorio izango lirateke.

Desplazamenduetarako eragozpenak balizkoak baino zerbait gehiago direla ez ikusteko, horretarako borondate garbia behar da. Eta eragozpena erabatekoa ez denean, kostu fisikoak, psikikoak eta ekonomikoak aski dira sufrimendua eragiteko. Bestalde, guk dakigula inoiz ez da eman bereizgarri hauek dituen baimenik, izaera ekonomikoko motiboengatik.

Ekibokorik egon ez dadin, ondoko hau argitu nahi dugu: “ez-ohiko baimena” familiaren bizilekutik hurbil dagoen espetxe baterako lekualdatze tenporal bat da; espetxe horretatik familiaren etxera lekualdatuko dute presoa, poliziaren zaintzarekin, iraupen jakin bateko (eskuarki ordu pare bat inguruko) bisita egiteko. Baimen hori lortzeko txostenak eta ziurtagiriak aurkeztu eta tramite burokratiko luzeak egin behar ditu.

Espetxe Arautegiaren 42. artikulua jasotzen du espetxeratu guztiek duten eskubidea, astean gutxienez bi komunikazio izateko, bisita bakoitzak gutxienez hogei minutuko iraupena izango duelarik. Hori da dagokigun eskubidea eta hori da urratzen den eskubidea. Ezin dugu onartu eskubide hori bisita batez ordezkatzea, kasurik onenean hainbat hilabetetik hainbat hilabetera egingo litzatekeen bisita batez ordezkatzea, hain zuzen ere; gainera, gure familiartekoa bilurtua dagoela egingo litzatekeena, gure familiaren ingurunean guardia zibila edo polizia bertan daudela. Eta gutxiago onar dezakegu espetxean dauden gure familiartekoen borondateari egozte bisita-eskubidea eragozten duen egoeraren emaitza besterik ez dena, hots, eskubideen urraketaren emaitza besterik ez dena.

Kasu konkretu bat aipatzen dugu orain, atzera botatako helegite batetik jaso. 89 eta 92 urteko bi familiartekoen kasua da; bietako batek Parkinson-en gaixotasuna jasaten zuen eta bere semea bisitatzen Valencian espetxera joan behar zuen. Entzutegi Nazionala puntu honetara heltzen da: egoera horrek bisitak egiteko zailtasuna suposatzen duen arren, ez dituela bisitak eragozten:

“espetxetik familiako bizilekura dagoen distantzia kasu honetan zalantzarik gabe eragozpen bat da, familiartekoen bisitak egiten jarraitzeko, baina oraingoz ez ditu erabat eragozten”

Beste edozein pertsonak egingo lukeen moduan, familiarteko hauek ere beren semea bisitatzen jarraituko dute, hori ez egitea beste erremediorik gelditzen ez zaien artean. Hori egingo dute, edozein dela ere desplazamendu hauek beren osasun egoeran duten kostua. Erraza da arrazoi humanitarioak aipatzea, hain nabariak diren egoeretan. Baina, gure aldarrikapena ez doa arrazoi humanitarioen bidetik, baizik urratzen ari diren eskubideekiko begirunea eskatzetik eta eskubide-urraketa horien kostuak azpimarratzetik: beren seme-alabak bisitatu ahal izateko, sufrimendua eskatzen zaie pertsona horiei.

Eta auto (ebazpen) berean honela jarraitzen du:

“Beste familiartekoen bisitei dagokienez, lekualdaketa-aren gastu eta arriskuek ez dute ukitzen espetxe- zigortuaren familia- bizitzarako eskubidea, ez baitute behar besteko entitate-rik komunikazioak eragozteko edo serio-ski oztopatzeko.”

Beste helegite batean, Iñaki Etxeberria preso euskaldunarenean, aurkitzen dira bere ahaideetako batek, Sara Fernándezek, bizia galdu zuen istripuari buruzko arrazoibide eta zirkunstantziak; Valdemoroko espetxera Iñaki bisitatza-za zihozela gertatu zen istripua. Istripu berean, beste familiarteko bat, Valdemoron espetxeratua zegoen beste preso euskaldun baten neska-laguna, larriki zauritu zen eta hainbat egunetan egoera kritikoan egon zen. Aurkezturiko helegitearekin batera agertzen dira istripu horri dagozkion mediku-txostenak, agiriak eta ziurtagiriak. Halaz eta guztiz ere, ez dago Entzute- gi Nazionalaren inolako aipamenik edo inolako adierazpenik, pertsona baten bizitza eraman duen gertaera hain larri baten aurrean.

Noiz, nola eta zein unetan kontsideratuko du Entzute- gi Nazionalak joan- etorrien zailtasunek, gastuek eta arriskuek badutela nahiko entitate familia- bizitzarako eskubidea urratze-ko? Zailtasunek ez dute behar adina entitate oraindik familia-bizitza eragoz- ten ez dutelako. Arriskuek ere ez dute behar beste entitate, emaitza heriotza izan arren. Zer-nolako baremoa erabiliko du sakabanatze-ari zor zaizkion gastuek familia-bizitza eragoz- ten ote duten erabakitze-ko? Etxegabetzea? Desnutrizioa?

Baina, Entzute- gi Nazionalak justifikazio aberranteagoak ere entseatu ditu:

“gerta daiteke batzuetan preso batzuei komeni izatea beren ahaide eta lagunak bizi diren tokietatik gertu ez egotea, batez ere senitarteko eta lagun horiek erakundearekin nolabaiteko kontaktua baldin badute, horrek haien birsozializazioa eragoztiko bailuke zalantzarik gabe ”

Izan ere, aberraziotzat bakarrik har dezakegu salaketa larri bat egitea eskubideen urraketa justifikatzeko asmoarekin. Gu guztion kontra zuzentzen den salaketa oso larria; familiarteko, lagun, ahaide eta preso politiko guztion kontra zuzentzen dena. Ez baitira preso batzuk beren ahaide eta lagunengandik urrun dauden espetxeetan daudenak, baizik preso GUZTIAK.

OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Aipamen berezia merezi du Entzuteği Nazionalak osasunerako eskubideari ematen dion tratamenduak. Bisiten kasuan, egin diren bisiten zenbaketa soilak eraman badute eskubideen urraketarik ez dela egon esatera, beste horrenbeste gertatzen da osasunerako eskubidearen kasuan ere: egindako kontsulta medikoen zenbaketak eta dagozkien espetxeek bidalitako txostenek ondorio berera eramaten dute.

Gure aldetik, zalantza handiak ditugu espetxe zentro batek txostenen bat egingo ote duen bere arduragabekeriak onartuz edo negatiboa gertatuko zaion beste auziren bat agertuz. Gertatzen dena da aldizkako azterketak ez direla egiten eta agindutako tratamenduak behin eta berriro eteten direla ondoko arrazoiengatik: espetxez etengabe aldatzen direlako, espetxez kanpoko kontsulta medikoetara joateko ezinbesteko burokraziarengatik eta beren konfiantzako medikuen laguntza jasotzeko zailtasunengatik. Horregatik galdetzen dugu, ea espetxe zentroek igorritako txostenetan agertzen ote diren, egindako kontsultekin batera, egin ez direnak edo egin ahal izan ez direnak ere.

Atzera bota diren helegiteen artean aurkitzen dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten gure hiru senitartekoenak:

Garikoitz Arruarte Santa Cruz, Almeriako presondegian espetxeratua; Espondilitis Ankilosantea eta begi bietako Aurre aldeko Ubeitis Akutua jasaten du.

Joxe Migel Etxeandia Meabe, Salamancako Topas-ko presondegian espetxeratua; Nahaste onsesibo-Konpultsiboa jasaten du, barne-hersturako koadro akutu batekin eta C Hepatitisarekin batera.

Iñaki Etxeberria Martín, Salamancako Topas-ko presondegian espetxeratua baita ere. Honako gaixotasun hauek ditu: miopia magna, koriorretinitis miopikoarekin. Eskuin begiko kristalinoaren subluxazioa. Ezker begiko Afakia eta aldebitako glaukoma.

Iñaki Etxeberriak kexa jarri zuen Zaintzako Epaitegiaren aurrean 2013 urtean, 17 hilabetetan berrikuspen medikorik egin ez ziotelako. Eta urte berorretako abuztuan kexa sartu zuen 9 hilabetetan berrikuspenik egin ez ziotelako. Hauek eta beste irregulartasun batzuk jasota zeuden aurkeztutako helegitean. Espetxe zentroak jakinarazi zuen normaltasunez tratatua zela.

Laguntza medikoari dagokionez, Topasko Espetxe Zentroko Zerbitzu medikoek egindako txostenak adierazten du atxilotuaren patologiak normalitatez artatzen direla, bai laguntza espezializatuari dagozkionak, bai erizaintzakoak.

Iruditzen zaigu, espetxeratuen osasunerako eskubideak, bere larritasunagatik, txosten berezi batean garatu behar direla, batez ere gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoek; preso horiei ukatu egiten zaie legeriak aurreikusten duen neurri bat, espetxetik ateratzearena. Luzera gabe aurkeztu nahiko genukeen txosten horrek gertaerak eta zirkunstantziak ez ezik, osasun eta zuzenbide arloetako profesionalen balorazioak ere ezagutaraziko ditu.

ZENBAT PERTSONA UKITZEN DITU SAKABANATZE POLITIKAK?

Sakabanatzearen ondorenak baloratzeko orduan, ezinbestekoa da kontuan hartzea zenbatekoa den espetxe-politikak eragiten dien hiritarren kopurua. Espainiako Estatuan preso euskaldunei bisitetarako ematen zaizkien baimenetatik hamar baino gehiago ezin daitezke izan presoaren familiartekoak ez direnentzat. Presoek bisitarien zerrenda bat egin behar dute, 6 hilabeterako balio duena. Denbora hori pasatzean, zerrenda berritu dezakete, hamar pertsonen izenak aldatuz. Une honetan sakabanaturik dauden 415 preso euskaldunetako bakoitzak baimendutako zerrendako 10 pertsonaren eta 6 familiarteko zuzenen bisita jaso dezakeela kontuan harturik, 6640 hiritarregana heltzen da sakabanatze politikaren eragina; horien artean, eta egiten ari garen ikerketako datuen arabera, 500 haur baino gehiago daude.

27 urtetan zehar, 1200 atxilotu baino gehiago espetxeratu eta sakabanatu dituzte; horrek esa nahi du 20.000 pertsona inguruk, presoek familiartekoak eta lagunak kontuan hartuta, jasan dituztela sakabanatzearen ondorenak.

ONDORIO MODUAN

Sakabanatutako eta urrundutako preso politiko euskaldunen familiarteko eta lagunak gara gu. Ez dugu guk erabaki horrela izatea; soilki, horrela gara. Baina, gure ahaideak atxilotu eta espetxeratu dituztenean, haiek ez abandonatzea erabaki dugu, pentsatzen dugulako ez diogula uko egin nahi eta ez diogula uko egin behar lotura afektiborako dugun eskubideari, ez eta familia-bizitzarako dugun eskubideari ere.

27 urte beteko dira indarrean dagoen espetxe-politika aplikatzen hasi zenetik. Egokitu zaigun kokagunetik nabaritu dugunez, espetxe-politika bi isurialde paralelotan garatzen da: presio eta xantaia tresna moduan gure familiarteko espetxeratuen kontra zuzentzen dena eta geure kontra zuzentzen dena. Biek dute helburu politiko garbi bat. Biek ezartzen dute inongo tribunalek diktatu ez duten zigor bat.

